

LEHIAKETA OINARRIAK

1.- Zientzia fikziozko eta gai zientifikoei buruzko fantasiazko generoan sar daitezkeen kontakizun argitaragabe guztiak aurkez daitezke lehiaketa honetara, baldin eta oinarri hauetan adieraziriko epearen barruan jasotzen badira.

Lanak euskaraz zein gaztelaniaz idatziko dira, eta ez dira izango lehiaketa honetan beste aldiz aurkeztuak edo beste lehiaketaren batean sarituak, ez eta oraindik erabakitzeke dagoen beste literatur sariren batera aurkeztuak ere, izenburu berarekin edo beste batekin. Lan bakoitzak izenburu bat izan beharko du.

2.- Lanek gutxienez 15.000 eta gehienez 25.000 hitz izango dituzte, orrialde batetik idatzita, gutxienez 12 pt neurriko letra eta lerroen arteko 1,5 espazioa erabiliz. Inprimaketaren kalitatea irakurtzeko erreza izango da. Ez da onartuko ipuin laburren multzo bat, beraien artean inolako erlaziorik ez badago argumentuaren aldetik, hau da, lan bera- ren kapitulu desberdinak ez badira.

3.- Originalak **aurkezteko epea**, deialdi honetatik aurrera, **2026ko urriaren 23ra** artekoa izango da. Posta elektronikoz bakarrik bidal daitezke **ztf.kultura@ehu.eus** helbidera, mezuaren gaiari "XXXVIII. Alberto Magno Lehiaketa" adierazita.

4.- Posta elektronikoz bidalitako kontakizunak .pdf formatuan erantsiko dira, sinadura elektronikorik gabeko fitxategian, eta izenburua kontakizunare- na izango da. Mezuaren gorputzean kontakizuna- ren izenburua eta egileak erabilitako leloa edo ize- nordea agertuko dira. Egilearen datuak erantsitako beste fitxategi batean bidali beharko dira, .pdf for- matuan. Fitxategi horren izenburuan "PLIKA" testua jarriko da, eta, ondoren, kontakizunaren izenburua.

Dokumentu horretan kontakizunaren izenburua eta egileak erabilitako leloa edo izenordea ere jasoko dira.

5.- **2.000 euroko lehenengo saria eta 1.000 euroko bigarren saria** egongo dira. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, sariak emateke utziko lira- teke.

6.- Epaimahaiaren **erabakia** apelaezina izango da, eta lehiaketaren sariak banatzeko ekitaldian bertan jakinaraziko da.

7.- Zientzia eta Teknologia Fakultateak antologia bat argitaratzeko eskubidea izango du, bertan kon- takizun sarituak direlarik. Idazle saridunak ados daudela ulertuko da, eskubideak Euskal Herriko Unibertsitatearen eskuetan uzten dituztela eta bestelako ekonomi ordainketei uko egiten dietela. Epaimahaiaren iritziz, literatur merezimendu na- hikoak dituzten lan aurkeztuak ere sar daitezke, baldin, eta soilik baldin eta, egileek dagokion bai- mena ematen badute.

8.- Epaimahaiak baztertu egingo ditu arrazis- moaren, sexismoaren, xenofobiaren edo pertso- nen duintasunaren aurkako beste edozein jokabi- deren apologia dakarten kontakizunak.

9.- Epaimahaiaren erabakiaren ondoren hautatu ez diren lanak suntsitu egingo dira.

10.- Epaimahaiaren osaketa bere garaian jakinara- ziko da.

11.- Ez da parte-hartzaileekin harremanik manten- duko.

12.- **Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berarekin.**



ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGIA

50 URTE
AÑOS
1968 - 2018
Biba Zientzia!
Ciencia Viva



ALBERTO MAGNO ZIENTZIA FIKZIOZKO XXXVIII. LITERATURA LEHIAKETA

ehu.eus/zientzia-teknologia-fakultatea